


Euskal AEko biztanleen batez besteko errentak % 7,5 egin zuen gora 2022an

Guztizko errenta pertsonalaren % 58,3ren jatorria lan-errentak izan dira, % 28,6rena transferentziak edo gizarte-prestazioak, % 8,8rena kapital-errentak eta % 4,3rena jarduera ekonomikoen errentak

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEn bizi diren 18 urte edo gehiagoko biztanleek 25.061 euroko batez besteko errenta pertsonala lortu dute 2022an, hau da, aurreko urtekoa baino % 7,5 handiagoa (1.748 euro gehiago).

Lurralde-banaketari dagokionez, batez besteko errenta pertsonalik handiena Gipuzkoakoa da (26.639 euro), eta, haren atzetik Bizkaikoa, 24.481 euroekin, eta Arabakoa, 23.660 euroekin. 2021. urtearekin alderatuta, berriz ere, Gipuzkoan batez besteko errenta pertsonalak izan duen igoera (% 9,4) Bizkaian eta Araban izan duena baino handiagoa izan da (% 6,7koa eta % 5,8koa, hurrenez hurren).

Euskal AEko batez besteko pertsona-errenta sexuaren arabera



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika

Hiriburuen kasuan, adierazitako aldeak areagotu egiten dira; izan ere, Donostian bizi diren pertsonen batez besteko errenta (30.809 euro) Euskal AEko batezbestekoa baino 5.748 euro handiagoa da. Bilbon eta Gasteizen bizi diren pertsonen batez besteko errentak, berriz, Euskal AEko batezbestekotik hurbilago daude (25.366 euro eta 24.000 euro, hurrenez hurren).

Euskal AEn bizi diren pertsonen errenta erabilgarria (guztizko errentari errentaren gaineko zerga eta langileen konturako gizarte-kotizazioak kenduta kalkulatzen dena) 20.855 eurokoa izan da 2022an, hau da, guztizko errentaren % 83,2. Errenta erabilgarria 2021ekoa baino 1.489 euro handiagoa izan da (% 7,7 handiagoa). Lurraldean arabera, Gipuzkoako errenta erabilgarria (22.187), berriz ere, Bizkaikoa eta Arabakoa baino handiagoa izan da (20.355 euro eta 19.709 euro, hurrenez hurren).

Euskal AEn bizi diren pertsonen 2022ko ekitaldian jasotako guztizko errenta pertsonalaren osaerari dagokionez, errenta pertsonalaren % 58,3ren jatorria lana izan da, 14.609 euroko batez bestekoarekin (aurreko urtean baino 986 euro gehiago); eta, gainerakoan, % 28,6rena transferentziak edo gizarte-prestazioak (7.158 euro); % 4,3rena jarduera ekonomikoen errentak (1.087 euro); eta % 8,8rena kapital-higigarriaren zein higiezinaren errentak (2.208 euro).

2022. urtean, guztizko errentak % 7,5 egin du gora, eta zertxobait gehiago errenta erabilgarriak (% 7,7), eta igoera hori errenta-mota guztietara hedatzen da, jardueren errentaren kasuan izan ezik, % 0,1 jaitsi baita. Horrela, kapital-errentek % 20,7ko igoera izan dute eta lan-errentek % 7,2koa.

Euskal AEko batez besteko errenta pertsonala, errenta motaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (eurotan). 2022

	Euskal AE			Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Errenta guztira	25.061	30.356	20.180	23.660	28.471	19.109	24.481	29.765	19.688	26.639	32.165	21.474
Lanaren errenta	14.609	17.833	11.636	14.184	17.081	11.443	14.510	17.682	11.632	14.963	18.420	11.732
Kapital-errenta	2.208	2.604	1.843	1.718	2.026	1.427	1.968	2.333	1.637	2.820	3.305	2.367
Jardueren errenta	1.087	1.458	745	943	1.245	658	1.066	1.461	709	1.185	1.551	843
Transferentziak	7.158	8.461	5.956	6.814	8.119	5.580	6.937	8.290	5.710	7.671	8.889	6.532
Errenta erabilgarria	20.855	25.031	17.005	19.709	23.414	16.203	20.355	24.466	16.626	22.187	26.674	17.992

Data 2024ko Urriaren 25a

Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika

Errentak biztanleen artean izan duen banaketari dagokionez, errenta-motaren bat jaso duten 18 urteko eta gehiagoko pertsonak 1,6 milioi dira, hau da, % 87,2; beraz, adin-talde horietako biztanleen % 12,8k ez dute inolako diru-sarrerarik izan 2022an. Gainera, pertsonen % 59,9k Euskal AEko batezbestekoa baino errenta txikiagoa izan dute – inolako errentarik jaso ez dutenak barnean hartuta –, eta % 9,2k batezbestekoaren bikoitza baino errenta handiagoa izan dute, hau da, 50.122 eurotik gorako errenta.


Mediana (hau da, biztanleria bi zati berdinetan banatzen duen errenta zein den ezartzen duen adierazlea) 20.043 eurokoa izan da. Beraz, 2022. urtean, Euskal AEko adin nagusiko biztanleen erdiek urteko 20.043 eurotik gorako batez besteko errenta pertsonala dute, eta gainerako erdiek, berriz, zenbateko hori baino errenta txikiagoa.

Batez besteko errenta pertsonala desberdina da adinaren eta generoaren arabera. Adinari dagokionez, errenta handiagoa da adinean gora egin ahala, 55-59 urtekoen taldera iritsi arte, eta hortik aurrera, behera egiten du biztanleria aktiboaren adin-tarteetatik urrundu ahala.

Gizonen eta emakumeen errentaren banaketan aldeak agertzen dira. Euskal AEko gizonek 30.356 euroko batez besteko errenta lortu dute, eta emakumeek, berriz, 20.180 eurokoa batez beste. Hau da, gizonen errenta pertsonala 10.176 euro handiagoa izan da. Alderik handiena 70-74 urtekoen adin-tartean erregistratu da. Kasu horretan, gizonen batez besteko errenta emakumeena baino 16.296 euro handiagoa izan da. Alde hori 2022an aurreko urtean baino 922 euro handiagoa da.

18-24 urteko gazteen batez besteko errenta pertsonala 5.062 eurora iritsi da, eta % 12,7ko igoera izan du 2022an, aurreko urtekoarekin alderatuta. Adin-tarte horretan, gizonen batez besteko errenta 5.675 eurora iritsi da eta emakumeen batez besteko errenta 4.405 eurokoa izan da, eta, beraz, % 14,1eko igoera izan du. Era berean, 25-29 urteko gazteen batez besteko errenta pertsonala 17.183 eurora iritsi da, eta gora egin du 2021. urtearekin alderatuta, baina neurri txikiagoan (% 6,9ko igoera). Igoera hori handiagoa izan da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino (% 7,1 eta % 6,8, hurrenez hurren).

Gizonen eta emakumeen batez besteko errenta pertsonala, adin-tarteen arabera. 2022



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika

Euskal AEko familien erdiaren batez besteko familia-errenta 40.032 eurokoa izan da 2022. urtean

Euskal AEko batez besteko familia-errenta 50.367 eurokoa izan da 2022. urtean. Guztizko familia-errenta kalkulatzeko, familiako kideen errenta pertsonalak gehitu dira, adingabeenak barne. Euskal AEko familia guztien batez besteko diru-sarrerak batez besteko errenta pertsonala halako bi izan dira gutxi gorabehera. Batez besteko errenta erabilgarria (zergen eta transferentzien ondoren) 41.897 eurokoa izan da 2022. urtean (errenta osoaren % 83,2), eta % 7,3ko igoera izan du 2021. urtearekin alderatuta.

Kasu honetan ere, Gipuzkoa izan da familia-errentarik handieneko lurraldea, 53.652 euroekin, eta haren atzetik Bizkaia kokatu da 49.438 euroekin eta ondoren Araba 46.542 euroekin. Hiriburuei dagokionez, Donostiak izan du familia-errentarik handiena (60.010 euro), eta haren atzetik Bilbo kokatu da 50.389 euroekin eta ondoren Gasteiz 46.906 euroekin.

Eskualdeen arabera banaketari dagokionez ere aldeak daude Euskal AE osatzen duten hogeit hamar eskualdeen artean. Batezbestekoa baino familia-errenta handiagoak izan dituzten eskualdeak bederatzi izan dira, eta honako hauek nabarmendu dira: Plentzia-Mungia Bizkaian (59.929 euro), Gorbeialdea Araban (57.486 euro) eta Urola Kosta Gipuzkoan (55.899 euro). Gainerako hamaika eskualdeek, berriz, batezbestekoa baino familia-errenta txikiagoak izan dituzte, eta honako hauek izan dira errentarik txikikoenak Debabarrena Gipuzkoan (48.521 euro), Enkartzioak Bizkaian (43.119 euro) eta Arabako Errioxa Araban (35.685 euro). Hain zuzen ere, azken eskualde horrek izan du Euskal AEko familia-errentarik txikiena.

Bestalde, familia-errentetan aldeak agertu dira hartzaile nagusiaren sexuaren arabera. Hartzaile nagusia gizona den kasuan, familien batez besteko diru-sarrerak 55.346 eurora iritsi dira, eta gehienak errenta-maila ertain edo handietan kokatu dira. Hartzaile nagusia emakumea den kasuan, berriz, batez besteko familia-errenta 43.314 eurokoa izan da, eta beheko mailetan kokatu da. Familia horien % 6,6 9.001-12.000 euroko mailan kokatu dira.

Familien % 63,6 inguruk Euskal AEko batezbestekoa (50.367) baino errenta txikiagoa jasotzen dute, edo ez dute errentarik jasotzen. Hain zuzen ere, familien % 2,1ek ez dute diru-sarrerarik izan 2022an. Aitzitik, familien % 8,1ek batez besteko errentaren bikoitzaren inguruko errentak jaso dituzte (>100.734 euro).

Familia-errenta handiagoa da familia-etxean diru-sarrera ekarpenik handiena egiten duen pertsonaren adinean gora egin ahala, 55-59 urtekoen adin-tartera iritsi arte. Adin horretan lortzen da batez besteko errentarik handiena (62.659 eurokoa). Maximo hori gizonen kasuan eta emakumeen kasuan ikus daiteke (66.978 euro eta 56.055 euro). Euskal AEko batezbestekoa baino errenta handiagoa duten familietan, hartzaile nagusiak 40-64 urte ditu.

Errenta pertsonala eta familiarra: emaitza nagusiak Euskal AEn. 2022

	2022 urtea		2021. urteari buruzko aldakuntza	
	Euro	Guztizkoaren gainean (%)	Euro	(%) ##
18 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN ERRENTA PERTSONALA	25.061	100	1.748	7,5
errenta-mota				
Lan-errenta	14.609	58,3	986	7,2
Kapitalaren errenta	2.208	8,8	378	20,7
Jardueren errenta	1.087	4,3	-1	-0,1
Transferentziak	7.158	28,6	386	5,7
Errenta erabilgarria	20.855	83,2	1.489	7,7
Lurralde historikoa				
Araba / Álava	23.660	94,4	1.287	5,8
Bizkaia	24.481	97,7	1.537	6,7
Gipuzkoa	26.639	106,3	2.298	9,4
Hiriburuak				
Bilbao	25.366	101,2	1.774	7,5
Donostia / San Sebastian	30.809	122,9	3.251	11,8
Vitoria-Gasteiz	24.000	95,8	1.385	6,1
Sexua				
Gizonak	30.356	121,1	1.996	7,0
Emakumeak	20.180	80,5	1.521	8,2
Adina				
18-34 urte	13.647	54,5	813	6,3
35-49 urte	28.672	114,4	1.699	6,3
50-64 urte	31.262	124,7	2.045	7,0
65-79 urte	25.146	100,3	2.367	10,4
80 urte eta gehiago	20.492	81,8	2.088	11,3
Pertzentilak				
25	7.780	31,0	1.082	16,2
50	20.043	80,0	1.336	7,1
75	35.123	140,2	2.128	6,4
95	61.436	245,1	3.211	5,5
FAMILI ERRENTA	50.367	100,0	3.362	7,2
Lurralde historikoa				
Araba / Álava	46.542	92,4	2.485	5,6
Bizkaia	49.438	98,2	2.904	6,2
Gipuzkoa	53.652	106,5	4.508	9,2
Hiriburuak				
Bilbao	50.389	100,0	3.368	7,2
Donostia / San Sebastian	62.010	123,1	6.446	11,6
Vitoria-Gasteiz	46.906	93,1	2.674	6,0
Hartzaile nagusiaren sexua				
Gizonak	55.346	109,9	3.798	7,4
Emakumeak	43.314	86,0	2.849	7,0
Familia tamaina				
1 pertsona	28.773	57,1	1.919	7,1
2 pertsona	47.071	93,5	3.542	8,1
3-5 pertsona	69.274	137,5	4.756	7,4
6-9 pertsona	74.757	148,4	3.396	4,8
10 pertsona eta gehiago	95.625	189,9	373	0,4
Pertzentilak				
25	22.664	45,0	1.547	7,3
50	40.032	79,5	2.496	6,6
75	63.436	125,9	3.716	6,2
95	118.250	234,8	6.645	6,0

(*)p.p = Aldea portzentajeazko puntutan

Data 2024ko Urriaren 25a

Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika

Informazio gehiago nahi izanez gero:
Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62